



Gaia 1/2017

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSI DEN (...) ANDREAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETARAKO GAIA BAITA ZUZENDARIAREN SENARRAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN IZAN DEZAKEEN HARREMAN PROFESIONALA

I.- KONTSULTA

1.- 2017ko ekainaren 5ean foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) mezu elektronikoa bidali zion interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusiak. Bertan, iritzia eskatzen zion EEBri, jakiteko ea talkarik gerta daitekeen berak duen karguaren eta senarrak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izan dezakeen harreman profesional hipotetiko baten artean.

2.- Mezu elektronikoa interesdunak adierazten du bere senarra (...) izeneko pertsona bakarreko enpresaren titularra dela, eta enpresak aholkularitza lanetan jarduten duela zenbait entitate eta erakunderentzat, publiko zein pribatuentzat.

Hurrena erantsi du ezen bere senarraren jardura profesionala bi eszenatoki desberdinetan garatzen dela: 1) (...) enpresatik zuzenean eskaini eta gauzatutako zerbitzu profesionalean; 2) (...) markaren pean eskaini eta gauzatutako zerbitzu profesionalean; (...) markaren jabea (...) da, eta (...)k merkataritzako kontratu bat du horrekin, giza baliabideen alorreko aholkularitza zerbitzuetarako.

3.- Kontsultan planteatzen da ea talkarik gerta daitekeen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren sektore publikoak duten Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eta interesdunaren senarrak Gipuzkoako Foru Aldundiari zerbitzu profesionalak ematearen artean.

II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen; horren helburua etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun ezaugarritzat finkatzea da.

Sistema horrekin batera, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kode bat onartu zen. Kode horrek foru kargu publikoek eta asimilatuek bete eta sustatu behar dituzten jokabide eta jarduera arauak ezartzen ditu, beren funtzioak eta jarduera publikoak betetzen eta, hala dagokionean, baita esparru pribatuko jarduerak egiten dituztenetarako ere, kargu horiek jardunean ari diren erakundearen irudiaren gainean eragin badezakete. Horren guztiaren xedea zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzea da, erakundearen irudia babestuta betiere.

2.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak zortzi balio, hots, ordezkari-tza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna eta bizikidetzatza eta errespetua, eta zortzi printzipio dauzka: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balio eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horiexek osatzen dute EEB honek baliatu behar duen erreferentziatzko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezen interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkieten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemari aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeari jasotako balore, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzari edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta langile baliokideen gainean proiektatuko dira, eta baita Foru Administrazioaren eta beronen foru sektore publikoaren zerbitzuko pertsonalaren gainean ere, hala badagokio.



4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoak, 3.b) artikuluan xedatzen du ezen EEBri dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 1.3 arauko 1 apartatuko b) letran ezarritakoaren arabera, horrexek ezartzen baitu Kodearen aplikazio esparrua, eskatzaileari aplika dakioke hura.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

Planteatzen den kontua interesdunaren senarraren jarduera profesionalari buruzkoa da. Senarra giza baliabideen esparruko aholkularitzan ari den enpresa bateko titular bakarra da, eta bere enpresaren zein (...) markaren bidez eskaintzen ditu bere zerbitzuak, merkataritza-kontratu bat egina baitu aipatu azken markaren jabearekin.

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, 47. artikuluan xedatzen du zuzendari nagusiek ere bete behar dutela foru diputatuentzat 37. artikuluan zehaztutako bateraezintasunen araubidea, eta artikulua horretan gaineratzen da 24. artikulua diputatu nagusiarentzat zehaztutako bateraezintasunen araubide bera ezarriko zaiela. Izan ere, azken artikulua horrek xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari kargu publikoari dagokien bateraezintasunen legedia bete beharko dela.

Horrenbestez, bai diputatu nagusiari bai foru diputatu eta zuzendari nagusiei aplikagarri zaie ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, aurreikusten duen bateraezintasunen araubidea.

Lege horretako 14. artikulua arautzen duenez, kargu publikoa betetzea bateragarri izango da jarduera pribatuekin, baldin eta jarduera horietan aritzeak arriskuan jartzen ez badu kargu publikodunak bere eginkizunean eduki beharreko inpartzialtasuna edo independentzia; eta jarduera horien artean, 14.1.a) apartatuan norberaren edo familiaren

ondarea administratze hutsa jasotzen du, lege bereko 22. eta 23. artikuluetan jarritako mugekin.

Horri dagokionez, 22. artikulua berariaz ezartzen du honakoa: *“Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoarekin edonolako itun edo kontraturik daukaten enpresetan, edo enpresa horiekin azpikontratuak daukaten enpresetan, edo arlo publikoko edozein erakundetatik diru-laguntzak jasotzen dituztenetan, lege honen aplikazio-eremuan dauden kargu publikoak betetzen dituztenek ezin dute eduki, ez zuzenean ez zeharka, % 10 baino partaidetza handiagoa, ez beren kasa, ez ezkontidearekin batera –ezkontza-eraentza edozein delarik ere-, ez izatezko bikotearekin batera, ez eta menpeko seme-alabekin edo tutoretzapeko beste inorekin batera ere.”*

Puntu honetan, argitu behar da ez dagokiola EEBri bateragarritasuneko auziak ebaztea, ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, 19. artikuluan xedatutakoaren arabera –beste organo bati esleitzen baitio eskumen hori-, ez delako EEBren jarduera esparrua ez eta xedea ere.

Nolanahi ere, batzorde honek uste du kontsultaren xedek baduela zerikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemarekin, baina ezin du alde batera utzi hemen planteatzen den kasurako aplikagarria izango litzatekeen araudia. Hain zuzen ere, lehen aipatutako ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 22. artikulua, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua (aurrerantzean SPKLTB), zeinak 60. artikuluan arautzen baitu kontratatze debekua.

SPKLTBren 60.1.g) artikulua xedatzen du ezingo dutela administrazio publikoekin edo horien sektore publikoarekin kontratatu bateraezintasun kasuetan sartuta dauden pertsonak edo pertsona juridikoen administratzaileak, eta bateraezintasunen inguruko hainbat araubide aipatzen ditu: estatu mailakoa (apirilaren 10eko aurreko 5/2006 Legea, apirilaren 10eko 3/2015 Legeak, Estatuko Administrazio Orokorreko goi kargudunen jardura arautzekoak, indargabetutakoa), edo autonomia erkidegoetako berariazko arauak, eta abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Herri Administrazioetako Langileen Bateraezintasunei buruzkoa. Era berean, debeku hori ezarriko zaie Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsi direnei.

Horrenbestez, sektore publikoko kontratuen inguruko estatu mailako araudiak, gure esparruan, ekainaren 26ko 1/2014 Legea bidaltzen gaitu, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenara.



Baina, lege hori aztertzen hasi aurretik, aipatu nahi dugu, argigarria delako, estatu mailako legea (martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi kargudunen jarduera arautzekoa), zeinaren bidez aldatu baita sozietate partaidetzetako ondare mugapenei buruzko aurreko testua, gaur egun 1/2014 Legearen 22. artikuluan jasotakoarekin bat zetorrena.

Lege horren testu berrian ez da aipatzen sozietatearen partaidetza izatea ezkontidearekin batera, ezkontzako erregimen ekonomikoa dena dela, edo elkarbitzita afektiboz horien antzeko lotura daukan pertsonarekin batera, bere menpeko seme-alabekin eta tutoretzapeko pertsonarekin batera; horren ordeztu, berariaz debekatzen du goi kargudunek, **berez edo bitarteko baten bidez**, ehuneko hamarretik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza izatea enpresetan, baldin eta edozein izaeratako hitzarmenak edo kontratuak badituzte estatuko, autonomia erkidegoko edo tokiko sektore publikoarekin, edo edozein administrazio publikok emandako diru laguntzak jasotzen badituzte. Ondorio horietarako, bitarteko pertsonatzat joko da goi kargudunaren kontura diharduen pertsona fisikoa edo juridikoa.

Horrenbestez, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokionez, gaiaren muina izango da sakonean aztertzea “bitarteko” pertsonarik ba ote dagoen, eta ez sozietateko partaidetzen kopurua.

Beraz, estatu mailako legearen arabera, kasu honetan interesdunaren senarraren enpresak ez luke *a priori* mugapenik edo debekurik izango foru sektore publikoarekin kontratuak sinatzeko, senarrak ez baitihardu interesdunaren kontura.

Alabaina, orain interpretatu egin behar da Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 22. artikulua duen irismena, artikulua honakoa baitio: *“Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoarekin edonolako itun edo kontraturik daukaten enpresetan, edo enpresa horiekin azpikontratuak daukaten enpresetan, edo arlo publikoko edozein erakundetatik diru-laguntzak jasotzen dituztenetan, lege honen aplikazio-eremuan dauden kargu publikoak betetzen dituztenek ezin dute eduki, ez zuzenean ez zeharka, % 10 baino partaidetza handiagoa, ez beren kasa, ez ezkontidearekin batera –ezkontza-eraentza edozein delarik ere-, ez izatezko bikotearekin batera, ez eta menpeko seme-alabekin edo tutoretzapeko beste inorekin batera ere.”* Beraz, ez du soilik jasotzen prestazio zuzena, foru administrazioarekin egindako edozein motatako kontratuen bidezkoa, baizik eta baita

harekin zuzenean kontratua sinatu duten enpresekiko azpikontratazioaren figuraren bidezkoa ere.

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioa eta Justizia Sailak, bateraezintasunen inguruko eskumena duenak, egin du dagoeneko interpretazio lan hori, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak 22. artikuluan kargu publikoentzat ezarritako mugapenei buruzko 2014ko abenduaren 22ko txosten juridikoaren bidez.

Txosten horretan, arauen aurrekarien, interpretazio arauen (KZ 3. art.) eta jurisprudenziaren azterketa sakona egin ondoren, ondorio honetara iristen da:

“(...) junto al interés de prevenir las contrataciones fraudulentas y el tráfico de influencia deben tenerse en cuenta también otros elementos de juicio, otros intereses públicos y otros daños colaterales que tal lectura podría ocasionar. Y, por ello, antes de descartar sin más otras lecturas alternativas que caben en el literal de la ley, debe reconocerse que la casuística puede ser tan variada que, como mínimo, conviene considerarlo con cautela.

(...) ha de admitirse, de entrada, que la literalidad del precepto –artículo 22.1- con la expresión “por sí mismos o junto con...” (...) permite una doble lectura, en función de si tomamos como referencia el cargo público o si tomamos como referencia a los dos miembros de la pareja (...)

(...) Haría falta por tanto la tenencia de participaciones del o la cargo para que resulte operativa la previsión legal sobre el cómputo conjunto de la participación simultánea que puedan ostentar otras personas allegadas en la misma empresa para que surja la incompatibilidad.

Esta lectura, centrada en la prohibición dirigida al cargo público, es plenamente coherente con el hecho de que la solución que la ley ofrece para poder enervar la causa de la incompatibilidad, que el cargo afectado por la incompatibilidad se desprenda de las participaciones que la determinan, no es aplicable al supuesto de participaciones exclusivas del cónyuge. El precepto legal no ordena al cónyuge desprenderse de nada. Y lógicamente, si quien tiene todas las participaciones es otra persona diferente al alto cargo (incluidos los hijos dependientes o los cónyuges), tal posibilidad de venta queda fuera de la capacidad de disposición del alto cargo, que no puede cumplir por sí mismo el mandato legal, porque no puede obligarlos a vender.

(...) En otras palabras, no basta con tener un cónyuge empresario o empresaria que ha contratado con la administración pública o ha recibido subvenciones, sin más, para poder deducir que hay incompatibilidad del cargo público.

(...) Al fin y al cabo, trayendo a colación los últimos dos criterios interpretativos del reiterado artículo 3.1 CC, los propios antecedentes legislativos de la Ley 1/2014 nos dejan ver cómo, durante los debates parlamentarios, dejaron patente que, junto a la necesidad de más controles y más transparencia sobre la labor de los cargos públicos, en el espíritu y finalidad de la norma estaba también garantizar que no se ponen trabas al acceso a los cargos públicos, siendo reiteradas durante el debate en pleno las llamadas de varios grupos parlamentarios a que la regulación se configure de tal manera que cualquier ciudadano pueda dar el paso de acceder a la política (también aquellos, por ejemplo, cuyos cónyuges vengan ejerciendo una profesión como autónomos o tengan una empresa que, dentro de procesos de concurrencia abiertos y transparentes o sin valerse de favores, venga ejerciendo una actividad económica para la Administración).



Dicho lo cual, no podemos perder de vista que en este caso nos hallamos ante una norma restrictiva de derechos, en primer término del cargo público y, en segunda instancia, de sus familiares, y que por tanto ha de ser interpretada restrictivamente. Máxime, cuando como se ha visto, respecto al cargo público nos podemos hallar incluso en el ámbito de un derecho fundamental, el reconocido en el artículo 23.2 de la Constitución, lo que refuerza esa necesidad de interpretación restrictiva, cuyo ejercicio no puede hacerse depender de decisiones ajenas (de su cónyuge o pareja de hecho) que puedan decidir vender o no las participaciones que puedan venir poseyendo previamente en negocios que, con anterioridad al nombramiento del cargo, vinieran contratando con normalidad con la administración. Tal y como claramente dispone la jurisprudencia constitucional, «para comprobar si una medida restrictiva de un derecho fundamental supera el juicio de proporcionalidad, es necesario constatar si cumple los tres siguientes requisitos o condiciones: si tal medida es susceptible de conseguir el objetivo propuesto (juicio de idoneidad); si, además, es necesaria, en el sentido de que no exista otra medida más moderada para la consecución de tal propósito con igual eficacia (juicio de necesidad); y, finalmente, si la misma es ponderada o equilibrada, por derivarse de ella más beneficios o ventajas para el interés general que perjuicios sobre otros bienes o valores en conflicto (juicio de proporcionalidad en sentido estricto)» (STC 96/2012 (LA LEY 66248/2012), de 7 de mayo, FJ 10; o SSTC 14/2003, de 28 de enero (LA LEY 1115/2003), FJ 9; 89/2006, de 27 de marzo (LA LEY 21773/2006), FJ 3).

Por todo ello, en la medida en que el literal de la norma admite varias definiciones de la incompatibilidad, entre ellas también la que hemos propugnado desde una perspectiva centrada en el cargo público a quien se dirigen los mandatos de la Ley 1/2014, debemos de favorecer aquella que, dentro del espíritu y finalidades múltiples que persigue la norma, produzca la menos limitación de derechos de terceros (cónyuge o descendientes). Así, si el cargo público no posee ninguna participación en una empresa que estuviera contratando con la Administración, en principio no puede decirse que exista automáticamente incompatibilidad, aunque su cónyuge sí fuera titular de un porcentaje superior al 10%, porque no hay que sumar nada con nadie”.

Batzorde honek bere egiten ditu txosten juridiko horretan jasotako hausnarketak eta zuhurtasunak. Hori dela eta, abiapuntutzat hartzen dugu ondorio hau: ezkontideek sozietatean duten partaidetza modu automatikoan kontatzen at –hori ez baita gure eskumeneko gaia-, guri dagokiguna da prebenitzea edozein erregimen ekonomiko edo edukitzako erregimen iruzur bilakatu dadin bai interes gatazkak bai karguaren aprobetxamendua saihestean.

Are gehiago, kezka hori bera jasota dago Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuan. Hala, 60.1.g) artikuluan, lehen aipatutako bateraezintasuneko araubideak jasotzeaz gain, kontratatzeke debekua ezartzen du goi kargudunen ezkontideentzat, antzeko elkarbitzita harremana duten pertsonentzat, aurreko nahiz ondorengo ahaideentzat, baita odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailako ahaideentzat, baldin eta interes gatazka sortzen bada kontratazio organoaren titularrekin edo kontratatzeke ahalmena eskuordetua duten organoetako titularrekin edo kontratazio organoaren ordezkoeekin.

Kezka hori berori jasotzen da Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean, non zerrendatzen baitira kargu publikoen eta langile baliokideen jokabideak bete behar dituen erakunde zintzotasunaren balioak, eta zintzotasunaren eta eskuzabaltasun balioei dagokionez honako hau ezartzen baitu: *“Foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo du lan. Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, edo bestela, Etika Batzordeari, hala badagokio. Ematen diren baldintzen edo gomendioen arabera, foru kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak ez dute erabakiak hartzeko prozesuetan zuzenean ala zeharka parte hartuko, ezta erabakiak hartzeko organo edo prozeduran ere...”* (2.2.4).

Betebehar hori modu berean jasotzen da 3.4.a) arauan, zeinak ezartzen baitu foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo dutela lan.

Horrez gain, eransten du interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik egonez gero, edo gatazka susmorik egonez gero, kargu publikoak dagokion autoritateari jakinarazi beharko diola lehenbailehen, edo bestela, horri buruzko kontsulta egin berme organoari [3.4.b) araua].

Hala, balizko interes gatazkari dagokionez, honako hau ezartzen du 3.4.d) arauak: *“Interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek harremanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere”*. Edonola ere, eta 3.4.c) arauak ezartzen duenaren arabera, ez du parte hartuko kasuan kasuko erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka.

Zuzentasunaren balioari dagokionez, 3.2.e) arauak ondorengoa xedatzen du: *“Bereziki, beren erabaki publikoetan eragina izan dezaketen kanpo interferentziak saihestuko dituzte, baita beren funtzioak betetzean kargu publiko gisa duten zuzentasuna zalantzan jarri ditzaketen ere. Zehazki, pertsona edo entitate jakin batzuen aldeko favoritismo susmoak piztu ditzaketen jarduerak saihestuko dituzte”*.

Azkenik, objektibotasun balioari dagokionez, 3.5.b) arauak ondorengoa xedatzen du: *“... beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dituzte edozein jarduera susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko ala zeharkako onura sor diezaieketela badirudi”*; 3.5.c) arauak, berriz, honakoa xedatzen du: *“Bereziki, jarduera objektiboa nagusi izango da*



izendapenetan, kontratazio publikoan, diru laguntzak ematean edo kargu publikoek beren funtzioak inpartzialtasunez betetzeko lege xedapena betetzean”.

Aipatutako arau horiek irakurrita, ondorioztatu behar da Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea ez dela betetzen kargu publikoek esku hartzen dutenean aldi berean bi interes mota batzen dituzten gaiekin, hau da, batetik, bere kargua dela eta defendatu eta babestu behar dituzten interes orokorrak eta, bestetik, interes pribatu propioak, familia kideenak edo hirugarren batzuenak batzen dituzten gaiekin zerikusia duten erabaki publiko, praktika edo jardueretan. Beraz, nahikoa da kargu publikoa duen pertsonaren jarduketa batek faboritismo susmoa eragitea, EEB honi kontsulta egitea aurreikusten duen 3.4.b) arauan jasotzen diren prebentzio mekanismoak aktibatzeke, abstentzioa ezartzen duen 3.4.c) araua aplikatzeko bezalaxe.

2.- Hain zuzen ere, abstentzioari dagokionez, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, jasotzen ditu administrazioaren zerbitzuko agintari eta langileek abstenitu behar duten prozedura balizkoak, eta horien artean aipatzen du honakoa: “ezkontza-lotura edo ezkontzaren antzeko lotura eta laugarren maila arteko ohol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego bereko izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritza” [23.2.b) artikulua].

Kasu honetan, gainera, interes gatazka bat sortzen da 3.4.d) eta 3.5.b) arauetan finkatutako baldintzetan zeren eta, zuzendari karguan aritzean, beren funtzioetatik kanpo utzi beharko baitute edozein jarduera susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko ala zeharkako onura sor diezaieketela badirudi, bereziki izendapenetan, kontratazio publikoetan edo diru laguntzak ematean [3.5.c) araua]. Horregatik guztiagatik, EEB honen iritziz (...) zuzendari nagusi karguan aritzean pertsona horrek ez du parte hartu behar senarra alderdi interesduna den inolako prozeduratan.

3.- Planteatu den gaiari dagokionez EEB honek ateratako konklusioa eta egindako gomendioa balizko bietan aplika daitezke, bai interesdunaren senarrak zerbitzu profesionalak zuzenean bere jabetzako enpresaren bidez ematen dituen kasurako, bai (...) markaren eta merkataritza-kontratuaren bidez ematen dituen kasurako, ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 22.1 artikulua egoera biak parekatzen dituelako, ezartzen

duelarik ezen bertan jaso aplikagarri zaiela bai Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoarekin itun edo kontratuak dauzkaten enpresei bai enpresa horiekin azpikontratuak dauzkaten enpresei.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen arabera, ez zaio galarazten (...) enpresari berez, ezta (...)en jabetzako (...) markaren bidez ere, edozein izaeratako itun edo kontraturik sinatzea Gipuzkako Lurralde Historikoko sektore publikoarekin, edo enpresa horien azpikontratatistak diren edota sektore publiko horretako entitatereen baten diru laguntzak jasotzen dituzten enpresekin, baldin eta kontratazio alorrean indarrean dagoen legedia betetzen bada kontratu horiek egitean.

Bigarrena.- Kontsulta egin duen pertsonak erabakiren bat hartu beharko balu senarra alderdi interesduna den gairen baten inguruan, edo erabaki horrek bere inguruko interesei zuzenean edo zeharka eragin diezaiekeenean, abstenitu egin beharko litzateke, hain zuzen ere kautela gisa, interes gatazkak prebenitzeko eta saihesteko eta partzialtasun eta favoritismo susmo edo zalantza oro ezabatzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua betez zein Gipuzkoako Foru Administrazioaren Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.2.e), 3.4.c) eta d) eta 3.5.b) eta c) arauak ezarritakoaren indarrez.

Hirugarrena.- Abstentzioak Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak exijitzen dituen berme guztiak bete ditzan, ebazpen honen bigarren atalean aipatzen diren gaiak hierarkikoki interesdunaren mende ez dauden organoek kudeatu eta ebatzi behar dituzte.

Donostia, 2017ko ekainaren 15an

Erakundearen Etika Batzordeko burua

Imanol Lasa Zeberio